

Euskal ekonomia- bilakaera 2020IIH Economía vasca IIT2020

2020ko irailaren 21a

1

Laburpena

2

Euskal ekonomia

BPGd-a

Barne eskaria

Kanpo sektorea

Lan-merkatua

Inflazioa

Sektore publikoa

Finantza-sektorea

Adierazleak

3

Ingurunea

4

Aurreikuspenak

2. Euskal ekonomia 2020IIHn

20IIHn, EAEko **BPGd-ak % 19,5** egin zuen atzera (a/a) eta hiruhileko honetarako aurretik zeuden aurreikuspen okerrak baieztatu zituen. Atzeraldia abian da eta lehenengo hiruhilekoan hasitako jaitsieran sakondu du indizeak, martxoan alarma-egoera ezarri ondoren. Horren ondorioz, eskaintzako adar guztietan geldialdia eman zen, pandemiarekin lotuago zeuden horietan izan ezik: administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak. Eskariaren osagai guztiak, bestalde, nabarmen uzurtu dira, kontsumo publikoan egindako gastua salbu.

Barne-eskariak hondoa jo du **(-% 17,2)**. 2019ko hiruhileko berarekin alderatuta, 19,2op beherago dago, kanpo-sektorearen -2,3op-ko ekarpen negatiboaren eta **Esportazioak (-% 30,1)** **Inportazioak (-% 26,1)** baino gehiago jaistearen ondorioz. Kontsumo publikoak (% 4,1) osagai kontrazikliko baten portaera dauka, baina tsunamia hain da handia non bere konpentsazio eragina erlatiboa baino ez den. **Barne-eskariaren** osagaiei begiratuta, **Etxeko kontsumoak** -% 20,3 behera egin duela ikusiko dugu, eta **Kapitalaren Eratze Gordinak**, aldiz, -% 23,0.

Eskaintzak antzeko joera izan du, eta bere osagai nagusiak hondoratu egin dira. Alarma-egoeraren eta konfinamenduaren ondorioz, ekonomia latente geratu da, aurretik ikusi gabeko erorketekin **Industrial (-% 26,7)**, **Eraikuntzan (-% 17,9)** eta **Zerbitzuetan (-% 17,5)**.



EAEko Kontu Ekonomikoen arabera, **20IIHko lan-okupazioa 806.000 lanpostutik** gora dago ozta-ozta, azken urtean % **17,2** behera egin ondoren. Kopuru absolutuetan, enpleguan egindako murrizketek datu hauek utzi dizkigute: **167.400 langile** gutxiago; horietatik 116.375 **Zerbitzuen** sektorekoak dira, 42.033 **Industriakoak** eta 8.544 **Eraikuntzakoak**. **PRAren** arabera, **langabezia-tasa % 10,8koa** izan zen 20IIHn.

2020ko abuztura arte metatutako **diru-bilketan (8.069M€)** % **16,6ko** jaitsiera ikus dezakegu. Diru-sarreraren arabera, 3.250M€ PFEZtik datoz (-% 7,9) eta 2.900M€ (-% 18,3) BEZaren bidez jasotaketik. Bi horiek dira diru-sarreraren modalitate nagusia. **EAEko zorpetzea lehen hiruhilekoan % 12,6koa** izan da.

2020/9/21


2. Aurrekaririk gabeko hondoratzea

EAEko BPGd-aren bariazio-tasak (%)




20IIHn, EAEko BPGd-ak % 19,5 egin zuen atzera (a/a) eta hiruhileko honetarako aurretik zeuden aurreikuspen okerrak baieztatu zituen. Atzeraldia abian da eta lehenengo hiruhilekoan hasitako jaitsieran sakondu du indizeak, martxoan alarma-egoera ezarri ondoren. Horren ondorioz, eskaintzako adar guztietan geldialdia eman zen, pandemiarekin lotuago zeuden horietan izan ezik: administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak. Eskariaren osagai guztiak, bestalde, nabarmen uzkuritu dira, kontsumo publikoan egindako gastua salbu.

2. Euskal ekonomia: hondoa jota



Barne-eskariak hondoa jo du (-% 17,2). 2019ko hiruhileko berarekin alderatuta, 19,2op beherago dago, eta kanpo-sektorearen -2,3op-ko ekarpen negatiboa okertu egin da, **Esportazioak** (-% 30,1) **Inportazioak** (-% 26,1) baino gehiago jaistearen ondorioz. Kontsumo publikoak osagai kontrazikliko baten portaera dauka, baina tsunamia hain da handia non bere konpentsazio eragina erlatiboa baino ez den.


2. Zerbitzuak eta Industria, kaltetuenak



Iturria: Eustat, gure datuak

Eskaintzak antzeko joera izan du, eta bere osagai nagusiak hondoratu egin dira. Alarma-egoeraren eta konfinamenduaren ondorioz, ekonomia latente geratu da, aurretik ikusi gabeko erorketekin **Industrian** (-% 26,7), **Eraikuntzan** (-% 17,9) eta **Zerbitzuetan** (-% 17,5).

2. Barne-eskari latentea



PIB Trimestral (demanda)	2019				2020	
	I	II	III	IV	I	II
GASTO EN CONSUMO FINAL	2,1	1,9	1,9	1,7	-3,0	-15,4
-Gasto en consumo final de los hogares e ISFLSH	2,2	1,9	1,8	1,5	-4,8	-20,3
-Gasto en consumo final de las AAPP	2,0	2,1	2,2	2,2	4,1	-3,0
FORMACIÓN BRUTA DE CAPITAL	4,0	2,5	2,2	2,4	-3,6	-23,0
-Formación Bruta de Capital Fijo en Bienes de Equipo	3,3	2,2	0,8	2,9	-5,0	-30,1
-Resto de Formación Bruta de Capital	4,4	2,6	2,9	2,1	-2,8	-18,8
DEMANDA INTERNA	2,6	2,0	2,0	1,9	-3,1	-17,2
EXPORTACIONES DE BIENES Y SERVICIOS	-1,4	2,8	-0,9	1,3	-7,5	-30,1
IMPORTACIONES DE BIENES Y SERVICIOS	-0,8	2,6	-1,0	0,9	-7,3	-26,6
PRODUCTO INTERIOR BRUTO a precios de mercado	2,2	2,2	2,1	2,2	-3,2	-19,5

Barne-eskariaren bilakaera azaltzeko, **Etxeetako kontsumoari** (-% 20,3) eta **Kapitalaren Eraketa Gordinari** (-% 23,0) begiratu behar diogu. Sektore publikoak bultzatutako suspertze-politikaren gaineratik daude, neurri handi batean, **Kontsumo Publikoan** islatu direnak (-% 3).





2. Eragin orokorra mundu osoan



Iturria: Eustat

Jardueraren etetea orokorra da, eta barne-merkatuari zein mundu osoko merkataritzari eragiten dio. Hori dela eta, esportazioen eta inportazioen gorabeheretan balio negatibo oso handiak ikusi ditzakegu. Bere ekarpen osoaren hazkundera apalagoa da, -2,3op.

2. Erorketa askean




Iturria: Eustat


Industrian ikus daiteke ehunekoaren uzkurduarik handiena (-% **26,7**); ondoren datoz **Eraikuntza** (-% **17,9**) eta **Zerbitzuak** (-% **17,5**), sektore guztien beherakada orokorraren barruan.

2. Uzkurtze orokorra

Estructura y Variación PIB IT20



Aportación al PIB IIT20 (pp)




Iturria: Eustat, gure datuak


19IIHn, **Zerbitzuen** sektoreak % **62,3**ko ekarpena egin zion EAEko BPGd-ari, eta termino errealetan % **17,5** uzkurtu ondoren, BPGd-aren atzeraldi handiaren arrazoi nagusia da, **-10,9pp**-rekin, Industriari egotzi dakioken erorketaren ia halako bi. **Eraikuntzak**, % **5,3**ko pisuarekin, Zerbitzuen pareko abiadan egin du atzera, **-% 17,9**, eta biek batera **-0,9pp kendu dizkiote hazkundeari**; azkenik, **Industriak**, euskal BPGd-aren % **21,6**arekin, % **26,7** egin du behera termino errealetan, eta **-5,8pp**-ko koska galdu du. Eskaintzako sektore guztien erregistroak negatiboak dira, eta euskal ekonomiaren egituraren pisu handiena daukatenen eragina handiagoa da.

2. Produktibitatea, ahul

Estructura Empleo y PIB IIT20



Productividad por sectores IIT20




Iturria: Kontu ekonomikoak. Eustat. gure datuak

Industria izan ohi da **enplegu bakoitzeko** produktibitate kalkulurik onena duen sektorea; 20IIHn, BPGd-aren eta enpleguaren egiturari begiratuta, BPGd-aren % **19,2** dela ikus dezakegu eta enpleguaren % **20,7**ren jabe dela. Lehen sektorea da BPGd-aren sorreran pisu espezifiko gutxien duena, eta bere produktibitatea ere beste sektoreena baino apalagoa da; Eraikuntzaren eta Zerbitzuen produktibitatea, aldiz, tarteko mailetan dago.


2. Langabezia-tasa % 10,8raino iritsi da

Langabezia-tasa: IIH % 10,8



19IIHn baino 167.400 langile gutxiago

Puestos de trabajo equivalentes a tiempo completo




Iturria: Kontu ekonomikoak. EPA. Eustat.

EAEko Kontu Ekonomikoen arabera, **20IIHko lan-okupazioa 806.000 lanpostutik** gora dago ozta-ozta, azken urtean % **17,2** behera egin ondoren. Kopuru absolutuetan, enpleguan egindako murrizketek datu hauek utzi dizkigute: **167.400 langile** gutxiago; horietatik 116.375 **Zerbitzuen** sektorekoak dira, 42.033 **Industriakoak** eta 8.544 **Eraikuntzakoak**. **PRAren** arabera, **langabezia-tasa % 10,8**koa izan zen 20IIHn.


2. Prezioen indizearen uzkurdura

Inflazioa sektoreka

EAEko bilakaera



Evolución de la inflación




Iturria: INE


2020ko abuztuan, EAEko **KPI**aren urte arteko tasaren aldaketa **-% 0,4**koa izan da. Garraio eta Komunikazio sektoreen prezioak izan dira gehien jaitsi direnak. Oinarrizko ondasunak, aldiz, hala nola Elikagaiak eta edari ez-alkoholdunak, hazkundearen bidean daude oraindik.

2. Positiboa kontu publikoetan, lehenengo hiruhilekoan oraindik ez baitira pandemiaren eraginak islatu

Deuda CAE según PDE



CAE: Capacidad (+) o Necesidad (-) de Financiación




2020ko abuztura arte metatutako **diru-bilketan (8.069M€) % 16,6ko** jaitsiera ikus dezakegu. Diru-sarrera motaren arabera, 3.250M€ PFEZtik datoz (-% 7,9) eta 2.900M€ (-% 18,3) BEZaren bidez jasotaketik. Bi horiek dira diru-sarreraren modalitate nagusia. **EAEko zorpetzea lehen hiruhilekoan % 12,6koa** izan da.

Finantzatzeko ahalmenari dagokionez, 6.302M euroko baliabide ez-finantzarioekin eta 6.549M euroko enpleguekin, euskal sektore publikoak **320M euroko superabita** dauka 2019aren amaieran, aurreko hiruhilekoekin bat datorrena; hala ere, bigarren hiruhilekoko jardura apalagoak bere isla izango du aurrerago.


2. Ziurgabetasunak kredituaren eskari pribatua geldiarazi du eta gordailuaren hazkundeari eutsi dio

Txostenaren itxieran BdEk argitaratutako azken datuak: 2020ko martxoa

S. Pribatuaren kredituak



S. Pribatuaren gordailuak




Alarma-egoeraren hasieran, **sektore pribatuaren kredituak** (-% 0,9 EAEn eta -% 0,5 Espainian) beheranzko joera apala dauka oraindik, bi lurraldeetan, jarduera urriaren eta ziurgabetasun handiko uneetan eragileen konfiantza faltagatik. Sektorre pribatuaren gordailuek, bestalde, dinamismo handiagoa daukate, aurreikuspen efektuak bultzatuta, eta hazkunde apalak dituzte. Hartara, EAEko **sektore pribatuaren gordailuak** (% 0,9) Estatuan (% 3,4) baino motelago ari dira aurrera egiten.

2. Sektore pribatuaren gordailu eta kredituetan gorabehera handirik ez

Txostenaren itxieran BdEk argitaratutako azken datuak: 2020ko martxoa



S. Pribatuaren Kredituen eta Gordailuen bariazioaren %



Iturria: BdE

Sektore pribatuaren gordailuen saldoa (79.967 M€) Kreditu pribatuen gainetik jarri da (60.537 M€) martxoan. 19.429 M eurokoa da aldea eta hazkundearen bidean dago oraindik. Kreditu pribatuek gordailu pribatuetan duten pisua % 75ekoa da EAEn (% 92,7koa da, aldiz, Espainian).

2. Etxebizitza-hipotekak, hazkunde etena




Iturria: INE

Urte hasieran, etxebizitza-hipoteken bolumena indarberritzen ari zen estatuko merkatuan, EAEn egonkor mantentzen zen bitartean. Bi kasuetan, pandemiak okertu egin ditu datuak. Otsaileko maximoaren ondoren ikus daitezke ondoriorik larrienak, une horretatik aurrera, atzeraldian sartu baitziren martxoan EAEn eta maiatzean estatu osoan. Beherako doikuntza azkarragoa izan da EAEn.

3. Berankortasuna. Suspertzearen zain

Evolución de la morosidad y cobertura




2020ko maiatzaren amaieran, OSR kredituaren **berankortasun-tasa** % 4,7koa zen, % 0,02 behera egin ondoren azken hilean. Hortaz, hobekuntzaren bideari eutsi dio, 2013an maximora iritsi zenetik. Bestetik, finantza-sistemaren OSR kredituaren estaldura-tasak % 0,57 puntu egin du gora azken hilean, eta **% 64,24**an kokatu da.


2. Euskal ekonomia uneko adierazleen arabera...

	MENSUALES	mar-20	abr-20	may-20	jun-20	jul-20
1 IPI (Eustat)		-14,3	-39,0	-27,6	-17,6	-12,4
4 Consumo de gasolina, gasóleo y fuelóleo™ (Cores)		-7,1	-41,2	-29,8	-4,4	-2,5
6 Matriculación de turismos (Ikerbide 1.25.3)		3,2	-96,5	-62,6	-6,1	34,1
7 Hipotecas. Número (INE)		-25,6	-16,7	-35,9	66,3	
8 Hipotecas. Importe (INE)		-20,3	-13,0	-26,9	50,2	
9 Compraventa viviendas		-18,9	-34,0	-52,6	-12,4	
10 Recaudación DDFF: Total impuestos (GV)		-7,2	-16,8	-21,8	-13,1	-19,9


IPI




Recaudación: Impuestos concertados




Matriculación vehículos



Consumo gasolina, gasóleo y fuelóleo



3. Euskal ekonomia Pandemiaren mende



Iturria: INE, Eustat eta gure datuak

Bizi dugun salbuespen egoera honek eragina dauka mundu osoan, eta euskal ekonomiaren, EBren eta Espainiaren alderaketa-esparru hurbilenetara zabalduta dago. Horietan guztietan, inolako salbuespenik gabe, **jardueraren erregistroak inoiz ikusi gabeko bideetan sartu dira**. Ageriko uzkuertzeen intentsitatearen atzean, hegazkortasun handia, ziurgabetasunaren hazkundera eta hurrengo hiruhilekoetako bilakaera aurreikusteko zailtasunak aurkituko ditugu. Hirugarren hiruhilekoan suspertzearen txanda izango dela uste dute analista askok, nahiz eta oraindik ziurtasun gutxi dagoen. Osasun-egoeraren bilakaeraren araberakoa izango da dena.


3. Euskal ekonomia Aurreikuspenak

Euskadi	PIB		
Panel de Previsiones		2020	2021
AFI	mar.-21	-7,5	-
BBVA	feb.-19	-7,3	5,8
CEPREDE	may.-19	-9,3	8,2
Gobierno Vasco	jun.-20	-8,7	6,7
Media		-8,2	6,9
<i>Máximo</i>		<i>-7,3</i>	<i>6,7</i>
<i>Mínimo</i>		<i>-9,3</i>	<i>5,8</i>

Fuente: DEP-septiembre 2020

4. Geldialdia suspertzearen ondoren

IHS Markit Euroguneko PMI indize konposatua




PMI: IHS Markit, Eurostat

Uztaileko suspertzearen ondoren, **euroguneko jarduera pribatuaren hazkundera gelditu egin da abuztuan**, birusaren agerraldi berrien inguruko konfiantzaren eta eskariaren ahuldadearen eraginez. Testuinguru horretan, langile kopurua etengabe doitzeko ahaleginean aritu dira enpresak, martxan zegoen susperraldiaren sendotasuna zalantzan jarrita.


4. Suspertze motela

ELGEren aurreikuspen
ekonomikoak 2020ko irailean



BPGd-aren hazkundera Espainian




BPGd: -% 22,1 (u/u) 2020IIHn



ELGEren arabera, hazkunde ekonomikoa hainbat faktoreren mende egongo da: birusaren agerraldi berriak, kontsumitzaile eta enpresen konfiantzan daukan eragina eta enpleguak eta enpresak indartzeko diru-laguntza publikoak bultzatutako eskarien indarra. Gobernuak finantza-arloko neurri gehiago ezarri beharko dituzte, enpresak produktu eta zerbitzu iraunkorretan inbertitzera bultzatu beharko dituzte eta karbonoaren erabilera urriko ekonomia baterantz joateko trantsizioa erraztu beharko dute. G-20ko herrialde guztiak atzeraldian egongo dira 2020an, Txina izan ezik. Aurreikuspenen arabera, 2021ean suspertze arin bat gertatuko da, baina herrialde askotako ekoizpena ez da helduko 2019ko amaierako mailetara, pandemiaren aurretik egiten ziren kalkuluetatik oso urrun.

20IIHan **espainiar ekonomiaren** aurrerapenari buruzko **INEn** datuak erakusten du -% 22,1eko uzkuertze bat eman dela bolumen endekatuaren urte arteko aldaketan. Aurrekaririk ez duen datua da. Etxeetako kontsumoak eta inbertsioen erorketak batetik, eta kanpo-merkatuen kolapsoak bestetik, hazkundearen okertze larri bat eragin dute. Zerbitzuen sektorearen ekarpen handiagoak kalte erlatibo handiagoa egiten dio.

4. Uste baino susperraldi nekezagoa



Iturria: Funcas

2020rako BPGd-aren hazkundearen aurreikuspena % 12 jaitسي da, apirilean minimoetan ziren bere osagai gehienak hondoratu ondoren. Aurreikuspena okertu egin da eta -% 10,8 izatetik -% 12ra jaitسي da. Osagaiei begiratuta, 2020an espero den hazkundera eskari nazionalaren (-10,7 pp), eta kanpo-sektorearen eskutik (-1,3 pp) etorriko da. Aurreko aurreikuspenarekin alderatuta, sei eta lau hamarreneko murrizketak ikus ditzakegu. Prezioen aurreikuspena bere horretan mantendu da: -% 0,2 eta % 1 2020 eta 2021erako, hurrenez hurren.

4. Espainiako ekonomiaren hazkunde aukerak

Espainiako ekonomiaren agertoki makroekonomikoak (2020-2022)

	Proyecciones de septiembre de 2020						
	2019	Escenario 1			Escenario 2		
		2020	2021	2022	2020	2021	2022
PIB	2,0	-10,5	7,3	1,9	-12,6	4,1	3,3
Consumo privado	1,1	-11,2	9,4	1,7	-13,1	5,5	3,2
Consumo público	2,3	5,4	-1,3	-0,1	5,6	-1,2	-0,5
Formación bruta de capital fijo	1,8	-19,5	6,0	5,3	-21,9	2,4	6,5
Exportación de bienes y servicios	2,6	-20,7	11,5	6,2	-25,2	7,4	8,0
Importación de bienes y servicios	1,2	-18,7	8,4	6,6	-22,0	4,9	7,3
Demanda nacional (contribución al crecimiento)	1,5	-9,3	6,2	1,8	-10,9	3,3	2,9
Demanda exterior neta (contribución al crecimiento)	0,5	-1,2	1,1	0,1	-1,7	0,8	0,4
Índice armonizado de precios de consumo (IAPC)	0,8	-0,2	1,0	1,2	-0,3	0,8	1,1

Iturria: BdE

Epe motz eta ertainean, epidemiaren bilakaera zalantzaz beteriko kontu bat da, eta goitik behera baldintzatzen du ekonomiaren etorkizuneko egoera. BdE etorkizunean eman daitezkeen bi egoerarekin ari da lanean, pandemiaren iraupenaren arabera.

4. Aurreikuspenen taula. Espainia

Última actualización

sep-20

España

	PIB		IPC		PARO (EPA)	
Panel de Previsiones	2020	2021	2020	2021	2020	2020
AFI	-12,2	7,7	-0,3	0,7	17,5	16,9
BBVA	-11,5	7,0	-0,1	0,7	17,4	17,1
Caixabank	-14,0	10,0	-0,3	1,6	19,3	19,5
CEEM	-11,2	8,5	-0,1	1,2	19,8	18,3
CEPREDE	-10,2	10,1	-0,2	1,4	15,2	15,2
CEOE	-11,5	7,0	-0,2	0,9	17,0	21,0
Funcas	-13,0	7,9	-0,1	0,9	17,0	17,2
ICAE-UCM	-11,5	7,0	-0,2	0,6	18,0	17,0
IEE	-12,0	6,0	-0,2	0,8	17,5	21,5
Intermoney	-12,4	7,2	-0,2	1,1	17,3	17,0
CONSENSO (media)	-12,0	7,3	-0,2	1,0	17,8	17,8
Máximo	-10,1	10,1	0,1	1,6	20,5	21,5
Mínimo	-14,0	5,7	-0,5	0,5	15,2	14,3
PRO MEMORIA						
Gobierno (abr 20)	-9,2	6,8	-	-	19,0	17,2
BdE (sept20)	10,5/-12,6	7,3/4,1	-0,2/-0,3	1,0/0,8	17,1/18,6	19,4/22,1
CE (julio 20)	-10,9	7,1	-	0,9	-	-
FMI (jun 20)	-12,8	6,3	-	-	-	-

Fuente: funcas

Euskal ekonomiaren bilakaera 2020IIH Economía vasca IIT2020

2020ko irailaren 21a